

GIPUZKOA QUANTUM 2025 PROGRAMAKO **DIRULAGUNTZAK**

Diruz lagunduko diren ekintzak:

Laguntzak teknologia kuantikoen arloko I+G proiektuak osorik edo partzialki finantzatzeko erabiliko dira.

Enpresek edo enpresako I+G unitateek lankidetzan aurkeztutako proiektuei emango zaie lehentasuna.

Eskabide horiei erantzun ondoren, oraindik aurrekonturik badago, ZTBESko ikastetxeek lankidetzan aurkeztutako eskaerak baloratuko dira.

Azkenik, ZTBES zentroen banakako proiektuak.

Proiektuen hasiera data: **Laguntza-eskaera aurkezten denetik aurrera.**

Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea: **2026ko irailaren 30a baino lehen.**

Erakunde onuradunen betekizunak:

- UPV/EHUK lankidetzatza-proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du lider gisa. Honako hau ulertzen da lankidetzatza: Laguntzen duen erakunde aditua kontratatzea (teknologia horietan esperientzia duen ZTBESko enpresa edo zentroa), proiektuaren aurrekontu osoaren % 30 gutxienez; edo erakunde laguntzaileak gutxienez 30.000 €-ko ekarpena egitea
- UPV/EHUK banakako proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Gipuzkoako zentroak

Ikertzaile nagusiaren betekizunak:

Funtzionario- edo kontratu-lotura UPV/EHUrekin, eskabidea aurkezten denetik eta proiektua gauzatzen den bitartean (2025eko ekainaren 28ra arte).

Proiektua Gipuzkoan garatu behar da.

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

Eskaera aurkezten den unean UPV/EHUrekin funtzionario- edo kontratu-lotura izatea.

Proiektua Gipuzkoan garatu behar da.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekiko lotura amaitzen duten ikerketa-taldeko kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek irauten duen bitartean. Ikertzaile nagusiak Ikerketa Errektoreordetzari jakinarazi beharko dizkio proiektua gauzatzean gertatzen diren bajak.

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

UPV/EHUren kasuan, gehieneko dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100era irits daiteke. Horretarako, funtsezko ikerketarako laguntza bakarrik eskatzea gomendatzen da.

Proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 120.000 €-koa izango da lankidetzatza-proiektuetarako, eta gehienez 80.000 €-koa banakako proiektu bakoitzeko.

Garrantzitsua da aurreikusitako gastuen izaera zehaztea, baita gastu horiek sortuko dituzten zereginak ere. Ez dira 200 eurotik beherako gastuak aurkeztuko. Funtsezko ikerketako,

ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko zereginei dagozkien zehaztuko da (gure kasuan funtsezkoa, diruz lagundu daitekeen kostua % 100ekoa izan dadin, eta, zeregin mota bakoitzeko, gastua langileei, suntsikorrari, azpikontratazioei, bidaiei edo proiekturako beharrezkoa den beste edozein gasturi buruzkoa den zehaztuko da.

UPV/EHUko taldeek aurkeztutako eskaerek proiektu bakoitzaren zentroaren aurrekontu osoaren zeharkako kostuen % 20 jaso beharko dute.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea **2025eko ekainaren 2an amaituko da, 13:00etan.**

Barne-trmitazioa UPV/EHU:

Ikertzaile nagusiek memoria beteta bidali beharko dute convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, lider edo laguntzaile gisa parte hartu nahi duten adieraziz, **2025eko maiatzaren 27a baino lehen, 12:00etan.**

Oharra: Deialdian zentro bakoitzerako baimendutakoa baino eskaera gehiago jasoz gero, VRik egingo du lehenespena, EHU Quantum Centerri kontsulta egin ondoren. VRik interesdunei helaraziko die erabakia. Nolanahi ere, etengabe jarriko gara harremanetan eskatzaileekin, eta horren inguruko edozein beritasun jakinaraziko diegu

Eskabideak web bidez aurkeztea:

1.- Eskaeraren alta ematea aplikazioan. Horretarako, honako datu hauek adierazi behar dira lehenengo pantailan:

IFK: Q4818001B

Eskatzailea: Proiektuaren IP datuak.

Posta elektronikoa: INren emaila.

2.- **Maiatzaren 30eko 12:00ak baino lehen**, eskaera aplikazioan igonda egon beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera, Ikerkertaren Zuzendaritzak legezko ordezkariaaren izenean sina dezan.

Horretarako, egiaztatuko da taldeak osatzen dituzten kideak bat datozela UPV/EHUren barne-araudiarekin, unibertsitatearekin funtzionario- edo kontratu-lotura dutela eta, gainera, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, eskabideak ez du legezko ordezkariaren balidazioa lortuko.